



Lebarietaganekoa etxebizitza

Aldaerak: Lebarietagoikoa
Ahozkoa: Lébaittegoikúe / Lébaitte



43° 11' 2"

2° 35' 44"

Berriz Iruditan / T. Angoitia

"...una casería denominada Lebarieta ganecua sita en el barrio de Andicono... radicante en jurisdicción de Berriz... se compone de una vivienda, piso llano, principal y camarote, mide un área y sesenta y ocho centiareas equivalentes a cuarenta y cuatro estados y veinticinco centimos..."
DJE 7/1 or. (1897)

Erroteta (Ikus Erroteta) errotatik gertu kokatzen dira *Lebarieta* etxeak (**Ikus Lebarietaz-pikoa eta Lebarietabarria**), eta tartean, honako hau, *Lebarietaganekoa*, alegia. XVIII. mendeko Bizkaiko su-erroldetan aurkitzen ditugu baserri honen lehen aipuak: *Lebarueta* (1704) eta *Levarioeta de Suso* (1745), behealdean kokatzen zen beste baserriatik bereizteko. 1825eko polizia-errolan ageri da lehendabiziz *Lebarieta ganecoa* (PE/1825) era, eta hortik aurrera nagusituko den forma izango da; *Levairaganecoa* (1863, DJE, 1/ 27. or.), *Lebarieta Ganecua* (1905, BUA, 40) eta azken Udal-errolan aurkitzen dugun *Lebarietaganecoa* (1967, BUA, CE) dira horren adibide. Berriztarren artean *Lébaittegoikúe* eta *Lébaitte* dira ahozko formarik erabilienak.

XX. mende amaieran berriztatu ondoren, errotik aldatu zen baserria. Ehun urte lehenago egindako deskribapenaren arabera, etxe xumea zen; baina egungo beharretara moldatu dute, oso eraikin koloretsu eta bizia bilakatu. Alderik zaharrena harrizko gorputza da, leihoak hegi molduratz hornituta dituen, eta jatorrizko egurrezko egitura guztiz eraberritu dute, tarteko adobe adreilu egosiekin ordezkaturak. Berria da ere burdinazko zutoinen gainean egindako begiratokia, etxean guztiz integratuta ageri zaiguna. Parte zaharra XVIII. mende inguruan eraikitako baserriari dagokio.

toponimia

Lebarietabarria izenaren inguruan azaldutakoari gehitu (**Ikus Lebarietabarria**) behar zaio, kasu honetan Lebarieta hitzari erantsitako -ganeko amaierak "goiko etxea" dela esaten digu.